

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

3874

EBAZPENA, 2021eko ekainaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita nola osatuko den 2021ean lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratze- eta gizareratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordea.

Lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten langabeei zuzendutako laneratze- eta gizareratze-proiektu berezien garapenerako dirulaguntzen deialdiaren 7. artikulua (2021-05-17ko EHAA) prozedura eta ebazpena arautzen ditu, eta 2.1. apartatuan ezartzen du eskabideak aztertzeko eta horien balorazioa egiteko batzorde bat osatuko dela, izaera teknikokoa.

Batzorde hori honako lanpostu hauek osatuko dute, eta, horiek ez badaude, haien ordezkoez:

- Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendaria.
- Laneratzea Aktibatze zuzendaria.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikari-profila duten bost pertsona, berariaz izendatuak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza adierazteko zein botoa emateko eskubidea izango du.

Deialdiaren 7. artikulua araber, ebaluazio-batzorde hori arduratuko da aurkeztutako eska-bideei buruzko ebazpen-proposamena egiteaz.

Halaber, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikulua adierazten duenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eman edo ez erabakitze proposamena egingo duen organoa nortzuk osatuko duten.

Hori guztia ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Ebazpen honek aipatzen duen deialdiaren 7. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera jakinaraztea:

Lehendakaria:

- Jesús Losada Besteiro, Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendaria.

Idazkaria:

- Veneranda Andrés Andrés, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.

Kide titularrak:

- María Teresa Martínez Granada, Laneratzea Aktibatze zuzendaria.
- Juan Carlos García Rejas, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko arduraduna.

- Marta Etxebarria Ubis, Enpresetarako Zerbitzuen Zerbitzuko teknikaria.
- Ángel Altuna Urcelay, Laneratzeko Zerbitzuko teknikaria.
- Zuriñe López de Arana Prado, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.

Ordezko kideak:

- Eduardo Campo Guillerna, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.
- Aitziber Leturiaga Aberasturi, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.
- Eider Gutierrez Ziardegi, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.
- Edurne Barañano Echebarria, Enpresetarako Zerbitzuen Zerbitzuko arduraduna.
- Jesús M.^a Ordoñez Orzaiz, Laneratzeko Zerbitzuko arduraduna.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratutzat joko da lehendakaria eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Lehendakaria ez badago, batzordekideetako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurrenkeran.

Idazkaria ez badago, batzordekideetako batek beteko ditu bere eginkizunak, aurretik zerrendatzen diren alderantzizko hurrenkeran.

Vitoria–Gasteiz, 2021eko ekainaren 17a.

Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko zuzendaria,
JESUS LOSADA BESTEIRO.